

# FUNTSEZKO ELKARTEAK

Nahiz eta enpresa ororentzat oso garrantzitsua izan beste elkarteekin elkarlanean aritzea, gure proiekturako sozio hauek bereziki beharrezkoak dira, izan ere, eurek gabe sinpleki ezinezkoa da PPB aurrera ateratzea. Gure aliantza hauek, halere, guztiak mota berekoak izango dira: Elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoak. Ekonomia jarduerako 3 faseetan parte hartuko dute gure enpresa aliatuek:e koizpenean eta banaketan gehienbat baina kontsumoan ere eragina izango dute. Beraz, bi enpresa mota berezi ditugu guretzat garrantzitsuak izango direnak.

## ELIKADURA KOOPERATIBAK

Lehenik eta behin, gure hasierako ideia aurrera eramateko bi elikadura kooperatiba hautatu ditugu: labore eta elika.

Labore Oartzunen sortu zen kooperatiba bat da, non km0 produktuak sustatzen diren, bertako produzitzaile txikiei haien burua ezagutaraztera emateko aukera luzatuz. Horrez gain, haien produktu eskeintza dieta orekatu eta osasungarri bat mantentzeko sortua da, izan ere, haien produktu gehienek, jatorri biologikoa dute. Horrez gain, bai produktuen prezioak eta bai langileen soldatak justuak dira: alde batetik erosleari dieta osasuntsu bat, prezio eskuragarri batetan eskeiniz, eta bestalde, langileei soldata justuak eskeiniz, izan ere, kooperatiba sistema du.

Elika kooperatiba Laborerekin elkarlanean aritzen den kooperatiba oartzuar bat da. Esan daiteke hau Laboreren parte dela, izan ere, Elikak, Laborek saltzen dituen barazkien gehiengoa produzitzen du.

Halere, enpresa handitzen doan ahala mota honetako kooperatiba gehiagorekin aliatuko ginateke gure sarea handitzeko. Elikadura kooperatibak gure proiektuaren oinarriak dira, hiru funtsezko alderditan ematen baitigute zerbitzua: horniketan, salmenta gune bat eskaintzen eta euren bezeroak ere erakartzen.

Gure zerbitzuan eskeintzen diren produktuak kooperatiba hauetatik lortuko genituzke, eta, kooperatiba hauen oinarrietako bat elikadura osasuntsu, ekologiko eta bertakoa denez, gure proiektuaren parte izateko bikainak dira. Benefizioak, gure kaxa edo saskien salmentan egongo dira, izan ere, kooperatibei erosten diegun prezioa baino altuagoa den prezio batean salduko genuke kaxa.

Horrez gain, salmenta gune bat eskaitzen digute, eta hau funtsezkoa da proiektua aurrera eramanez ahal izateko, izan ere, hasiera batean bereziki, gure produktua saltzea izango da erronka handiena, eta lan hau errazteko, kooperatiben lokaletan bertan gure zerbitzua promozionatzea funtsezkoa da.

Gainera, kooperatibei ongi datorkie gure zerbitzuak ahalik eta oartzun gehiena egitea, izan ere, haien produktuez hornituak daudenez kaxak, gure proiektuak harez eta hobeto funtzionatuz, haiek harez eta salmenta kopuru handiagoa egingo lukete. Azkenik, bezeroak

erakartzen lagunduko ligukete, azken finean, aurretik aipatutako promozioari esker, gure proiektuak bezero berriak lortuko lituzke.

### BANATZAILEAK

Saskien etxez etxeko banaketarako eta helburuak aurrera ateratzeko DHL enpresarekin bat egingo genuke. Aipatu bezela, enpresa honek banatzaile lanak egingo lituzkete, guk agindutakoa betetzen, eta noski, guk bezeroek agindutakoa betetzen. Gainera, guk sortutako saskiak etxeetara egoera onean iristea ezinbestekoa da proiektuaren funtzionamendurako.

DHL enpresarekin harremanetan jartzeko, lehen pausoa hauei gure proiektua jakinaraztea izango zen. Besterik gabe, oraindik ez dakigu zenbat langile (DHS-koak) kontratatu edo genituzken, baina geroz eta hobeto joan dena eta geroz eta mozkin gehiago atera, langile gehiagorekik lan egiteko asmoa dugu PPBn.

Laburbiltzeko, funtsezkoa den enpresa ikusten dugu, azken finean bezeroen gertutasunerako garrantzitsua izango baitzen, eta enpresaren helburu eta azpi helburuak betetzeko guztiz beharrezkoa.

Hala eta guztiz ere, ekologikotasunaren gure apostua areagotzeko, enpresak hazkunde esanguratsu bat izan ostean DHLrekin lankidetzara apurtuko genuke, eta horren ordez guk alkilatutako furgoneta elektrikoan egin gure banaketak, baina aipatu bezala, hau epe luzerako helburua dugu eta enpresaren hasieran funtsezkoa izango litzateke DHL sozio bezala izatea.